



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETIA HEDAILARITZA DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EAEko kultura-programazioaren azterketa

2024ko lehen hiruhilekoa





Aurkibidea

0. AURKEZPENA	3
1. FITXA TEKNIKOA	4-6
Azterketa-unibertsoa	5
Ohar metodologikoak	6
2. EKITALDIEN AZTERKETA	7-9
Datuen laburpena	8
Ekitaldien banaketa, motaren arabera	9
3. KONTZERTUAK	10-14
Ekitaldiak, sarreren prezioa eta espazioa	11
Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera	12
Kontzertuen banaketa, hizkuntzaren arabera	13
Kontzertuen banaketa, musika-generoaren arabera	14
4. ANTZERKIA	15-20
Emanaldiak eta sarreren prezioa	16
Antzerki-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera	17
Antzerki-emanaldien banaketa, hizkuntzaren arabera	18
Antzerki-emanaldien banaketa, antzerki-generoaren arabera	19
Antzerki-emanaldien banaketa, publikoaren eta espazioaren arabera	20
5. DANTZA	21-24
Emanaldiak eta sarreren prezioa	22
Dantza-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera	23
Dantza-emanaldien banaketa, dantza-generoaren arabera	24
6. BERTSOLARITZA	25-27
Ekitaldiak eta haien banaketa, lurraldearen arabera	26-27
7. ERAKUSKETAK	28-30
Ekitaldiak eta haien banaketa, lurraldearen arabera	29-30



0- Aurkezpena

2024ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean programatutako kultura-ekintzen azterketa

2024ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitarteko kultura-programazioaren egoeraren berri ematen du txosten honek.

Bi ataletan banatuta dago azterketa. Batetik, kultura-programazioaren egoera erakusten da **bere osotasunean**, ekitaldi-moten arabera eta 2023ko epealdi bereko datuekin alderatuta. Bestetik, **bost kultura-esparru** zehatzen kultura-programazioaren errealitatean sakontzen da: **Musika, Antzerkia, Dantza, Bertsolaritza eta Erakusketak**.



1. Fitxa teknikoa

Azterketa honetarako erabilitako
unibertsoa





AZTERKETA-UNIBERTSOA

INFORMAZIO-ITURRIA	Kulturklik* (www.kulturklik.euskadi.eus)
AZTERTUTAKO UNIBERTSOA	4.690 ekitaldi Unibertso osoa, ez lagin bat
JASOTAKO EKITALDI-MOTAK	13 ekitaldi-mota Kontzertuak, Antzerkia, Erakusketak, Dantza, Bertsolaritza, Jaiak, Hitzaldiak, Azokak, Zinema eta ikus-entzunezkoak, Ikastaroak/tailerrak, Lehiaketak, Jaialdiak eta zikloak, Bestelakoak
AZTERTUTAKO EPEALDIA	2024ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean programatutako ekitaldiak
AZTERTUTAKO LURRALDEAK	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
DATUEN AZTERKETA ETA KOORDINAZIO TEKNIKOA	Kualitate Lantaldea (Kulturklik taldea)

* Bertsolaritzaren datuak aztertzeko erabilitako informazio-iturria Bertsozale Elkartearen izan da



OHAR METODOLOGIKOAK

ERAKUSKETAK

- Aztertutako erakusketak erreferentziazko epealdian (2024ko lehen hiruhilekoa) inauguratutakoak dira, haien amaiera-data edozein dela ere. Ez dira kontuan izan urtarrila eta martxoa bitartean jendearentzat irekita zeuden arren **2024ko urtarrilaren 1a baino lehen inauguratu ziren erakusketak**.

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

- Kulturklien ez dira jasotzen EAEko zinema-areto guztietako **film komertzialen emanaldiak**. Honako hauek baino ez dira argitaratzen Kulturklikeko agendan: **euskal filmen emanaldiak EZAren zinema-areotan**, euskarazko filmen emanaldiak (**Zinema Euskaraz**) eta programa bereziekin lotutako emanaldiak (**zinema-zikloak, zineforumak eta/edo zineklubak**, esaterako).

PREZIOAREN ALDAGAIA

- **Kontzertuen eta antzerki- eta dantza-emanaldien prezioa soilik hartu da kontuan**. Ez da aztertu bertsolaritza-ekitaldien eta erakusketen prezioa, bi arrazoi nagusirengatik: batetik, doako ekitaldiak izaten dira kasu askotan (aire zabaleko bertso-saioak eta kultur etxeetako edo udal-espazioetako erakusketak doan izaten dira ia beti); bestetik, bi ekitaldi-mota horietan, sarrerek ekitalditik haragoko beste jarduera batzuk ere barne hartzen dituzte maiz (adibidez, bertso-afari edo -bazkarietako sarrerek barne hartzen dituzte afaria edo bazkaria, eta museoetako sarrerek zentro jakin horren erakusketa-eskaintza osoa bisitatzeko aukera ematen dute, erakusketa bakarrera mugatu ordez). Aztertutako unibertsoari dagokionez, **batez besteko prezioa kalkulatzeko**, ordainpeko kontzertuak eta dantza- edo antzerki-ikusketak baizik ez dira izan dira kontuan, hots, **kanpoan utzi dira doako ekitaldiak**.

EMANALDIEN ARABERAKO AZTERKETA

- **Antzerkiaren eta dantzaren kasuan, emanaldien arabera** egin da azterketa, eta ez ekitaldien arabera. Horrez gain, estatistika-helburuekin, formatu txikiko antzezlanak programatutako egunen arabera zenbatu dira, eta ez egindako emanaldien arabera.

AUTOMATIZAZIOEN ERAGINA

- Kulturklien etengabeko hobekuntza-prozesuaren baitan, **edukiak argitaratzeko automatizazio-mekanismoak** jarri dira martxan EAEko hainbat kultura-eragilerekin. Horren ondorioz, ekitaldi-mota batzuen kopurua hazi egin da; honako hauena, besteak beste: Bestelakoak, Zinema eta ikus-entzunezkoak eta Hitzaldiak.

2. Ekitaldien azterketa

EAEko kultura-jardueraren laburpena:
2024ko urtarrilak 1-martxoak 31





DATUEN LABURPENA

Kulturklikeko agendan jasotako datuen arabera, 4.690 kultura-ekitaldi egin dira EAEn urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean.

4.690 ekitaldi

2024ko lehen hiruhilekoan

4.144 ekitaldi

2023ko lehen hiruhilekoan


+% 13



EKITALDIEN BANAKETA, MOTAREN ARABERA

1. grafikoa: Ekitaldien banaketa, motaren arabera (dantza eta antzerkia emanaldien arabera jaso dira)

■ 2023ko urtarrilak 1 - martxoak 31
■ 2024ko urtarrilak 1 - martxoak 31



*Jaiak; Lehiaketak; Ikastaroak/tailerrak; Jaialdiak eta zikloak; Azokak



3. Kontzertuak

2024ko lehen hiruhilekoan EAEn
izandako kontzertuen azterketa



KONTZERTUAK: EKITALDIAK, SARREREN PREZIOA ETA ESPAZIOA

1.157
kontzertu

-% 0,6

2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta

2024ko lehen hiruhilekoan, EAEn egin diren 1.157 kontzertu jaso dira Kulturkliken.

Ordainpeko kontzertuen batez besteko prezioa 14,5 eurokoa izan da. 2023ko epealdi berean 13,1 eurokoa izan zen. Kontzertuen % 28 doan izan dira.

Azkenik, nabarmendu behar da musika-emanaldien % 6 kanpoaldean izan direla.

Sarreraren batez besteko
PREZIOA

14,5 €

13,1 €

2023ko lehen hiruhilekoan

PREZIOA
(mediana)


12,0 €

10,5 €

2023ko lehen hiruhilekoan

KONTZERTUEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

2. grafikoa: Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera, 2024ko urtarrila-martxoa (%)



2023ko lehen hiruhilekoan:

- **Araba: % 15,0**
- **Bizkaia: % 45,2**
- **Gipuzkoa: % 39,8**

1. taula: Kontzertuen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	KONTZERTUAK, 100.000 biztanleko (2024KO LEHEN HIRUHILEKOA)	KONTZERTUAK, 100.000 biztanleko (2023KO LEHEN HIRUHILEKOA)
ARABA	52	53
BIZKAIA	46	46
GIPUZKOA	63	65

Kulturklien jasotako kontzertuen banaketa lurraldearen arabera aztertuta, kontzertu guztien % **45,6 Bizkaian** izan dira, % 39,5 Gipuzkoan eta % 14,9 Araban.

Kontzertuen banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulaturik, **Gipuzkoa izan da kontzertu gehien programatu duen lurraldea**: 63 ekitaldi 100.000 biztanleko.

KONTZERTUEN BANAKETA, HIZKUNTZAREN ARABERA

2. taula: Kontzertuen banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

	KONTZERTUAK (2024KO LEHEN HIRUHILEKOA) %	KONTZERTUAK (2023KO LEHEN HIRUHILEKOA) %
EUSKARA	25,8	27,5
GAZTELANIA	20,7	20,4
HAINBAT HIZKUNTZA *	20,1	13,4
HIZKUNTZA GABE	17,5	19,6
INGELESA	10,6	12,3
BESTE BATZUK	0,2	0,3
EZEZAGUNA	5,1	6,5

Kontzertuen hizkuntzari dagokionez, euskara izan da hizkuntza erabiliena 2024ko lehen hiruhilekoan EAEn egindako musika-emanaldietan: kontzertuen % 25,8 euskaraz izan dira, gaztelaniazko kontzertuen (% 20,7) eta hainbat hizkuntzatako emanaldien (% 20,1) aurretik.

Hizkuntza gabeko kontzertuak % 17,5 izan dira, ingelesezkoen (% 10,6) aurretik.

* Hizkuntza ezberdinetan abesten duten taldeek ekitaldi beraren barruan ematen dituzten kontzertuak dira gehienbat

KONTZERTUEN BANAKETA, MUSIKA-GENEROAREN ARABERA

3. taula: Kontzertuen banaketa, musika-generoaren arabera (%)

	KONTZERTUAK (2024KO LEHEN HIRUHILEKOA) %	KONTZERTUAK (2023KO LEHEN HIRUHILEKOA) %
MUSIKA GARAIKIDEA (pop-a, rock-a, heavy-a, rap-a, jazz-a, funk-a, fusio-musika, reggaea...)	80,3	77,3
MUSIKA KLASIKOA	9,5	12,7
MUSIKA ESPIRITUALA (erlijiosoa, korala, gospela...)	4,5	3,0
EUSKAL MUSIKA HERRIKOI ETA TRADIZIONALA	3,7	3,4
MUNDUKO MUSIKAK	2,0	2,1
Beste batzuk	0	1,5

Musika garaikideko emanaldiek izan dute presentzia handiena kontzertuen agendan; emanaldi guztien % 80,3 genero horretakoak izan dira.

Musika klasikoko kontzertuak guztien % 9,5 izan dira, eta musika espiritualekoak % 4,5.

Euskal musika herrikoi eta tradizionala eta munduko musikak generoetako kontzertuak guztien % 3,7 eta % 2,0 izan dira, hurrenez hurren.



4. Antzerkia

2024ko lehen hiruhilekoan EAEn
izandako antzerki-emanaldien
azterketa



ANTZERKIA: EMANALDIAK ETA SARREREN PREZIOA

1.018
emanaldi

+% 3,7

2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta

2024ko lehen hiruhilekoan, EAEko 1.018 antzerki-emanaldi jaso dira Kulturkliken.

Ordainpeko antzerki-ekitaldien batez besteko prezioa 14,1 eurokoa izan da. Antzerki-ekitaldien % 17 doan izan dira.

Sarrerren batez besteko
PREZIOA

14,1 €
10,8 €

2023ko lehen hiruhilekoan


PREZIOA
(mediana)

10,0 €
10,0 €

2023ko lehen hiruhilekoan

ANTZERKI-EMANALDIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

3. grafikoa: Antzerki-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera, 2024ko urtarrila-martxo (%)



■ Bizkaia ■ Gipuzkoa ■ Araba

2023ko lehen hiruhilekoan:

- Araba: % 8,8
- Bizkaia: % 51,4
- Gipuzkoa: % 39,8

4. taula: Antzerki-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	ANTZERKI-EMANALDIAK, 100.000 biztanleko (2024KO LEHEN HIRUHILEKOA)	ANTZERKI-EMANALDIAK, 100.000 biztanleko (2023KO LEHEN HIRUHILEKOA)
ARABA	24	26
BIZKAIA	50	44
GIPUZKOA	51	54

Kulturklien jasotako antzerki-emanaldien banaketa lurraldearen arabera aztertuta, % 56,0 Bizkaian izan dira, % 36,1 Gipuzkoan eta % 7,9 Araban.

Emanaldien banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulaturik, **pixka bat handiagoa** izan da Gipuzkoan (51), Bizkaian (50) baino. Araban, aldiz, 24 emanaldi izan dira.

ANTZERKI-EMANALDIEN BANAKETA, HIZKUNTZAREN ARABERA

5. taula: Antzerki-emanaldien banaketa, hizkuntzaren arabera (%)

	ANTZERKI-EMANALDIAK (2024KO LEHEN HIRUHILEKOA) %	ANTZERKI-EMANALDIAK (2023KO LEHEN HIRUHILEKOA) %
GAZTELANIA	45,8	45,8
EUSKARA	44,3	46,2
HIZKUNTZA GABE	6,8	3,6
HAINBAT HIZKUNTZA *	1,7	2,5
BESTE BATZUK	1,5	1,8

Lehen hiruhilekoan egin diren antzerki-emanaldien % 45,8 gaztelaniaz izan dira; % 44,3, euskaraz.

Bestalde, emanaldien % 6,8 testu gabeak izan dira; gehienak (% 85) haurrentzako ikuskizunak izan dira.

*Aldi berean hizkuntza bat baino gehiago darabilten antzezlanen emanaldiak edo hizkuntza ezberdinetako emanaldiak dituzten antzerki-ekitaldiak

ANTZERKI-EMANALDIEN BANAKETA, ANTZERKI-GENEROAREN ARABERA

6. taula: Antzerki-emanaldien banaketa, antzerki-generoaren arabera (%)

	ANTZERKI-EMANALDIAK (2024KO LEHEN HIRUHILEKOA) %	ANTZERKI-EMANALDIAK (2023KO LEHEN HIRUHILEKOA) %
TESTU-ANTZERKIA	54,6	65,6
ZIRKUA	12,2	8,1
ANTZERKI MUSIKALA	10,5	8,7
BAKARRIZKETAK	9,4	5,8
BESTE BATZUK	4,3	4,9
MAGIA	4,1	3,6
ANTZERKI LIRIKOA	3,3	3,4
KALE-ANTZERKIA	1,5	0

Antzerki-generoari dagokionez, 2024ko urtarrila eta martxoa bitartean EAEn egindako **emanaldien % 54,6 testu-antzerki motakoak** izan dira.

Emanaldi-kopuru handiena izan duen bigarren antzerki-generoa **zirkua** izan da (**emanaldi guztien % 12,2**), eta hurrengoa, **antzerki musikala** (% 10,5).

Jarraian kokatu dira **bakarrizketak** (% 9,4) eta "**beste batzuk**" moduan sailkatutako ikuskizunak (hizkuntza gabeko antzerki-emanaldiak: txotxongiloak, maskarak...), emanaldien % 4,3rekin, eta **magia-ikuskizunak** (% 4,1).

Emanaldi-kopuru txikiena izan duten antzerki-generoak **antzerki lirikoa** (% 3,3) eta **kale-antzerkia** (% 1,5) izan dira.

ANTZERKI-EMANALDIEN BANAKETA, PUBLIKOAREN ETA ESPAZIOAREN ARABERA

Emanaldien

% 40

haurrentzat eta/edo
familientzat

% 35

2023ko epealdi berean

Emanaldien

% 4

kanpoaldean

5. Dantza

2024ko lehen hiruhilekoan EAEn
izandako dantza-emanaldien
azterketa



DANTZA: EMANALDIAK ETA SARREREN PREZIOA

140
emanaldi

+% 2,2

2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta

2024ko lehen hiruhilekoan, EAEko 140 dantza-emanaldi jaso dira Kulturkliken.

Ordainpeko dantza-ikuskizunen batez besteko prezioa 16,0 eurokoa izan da. Dantza-ikuskizunen % 28 doan izan dira. Bestalde, emanaldien % 13 kanpoaldean egin dira.

Sarrereren batez besteko
PREZIOA

16,0 €
17,9 €

2023ko lehen hiruhilekoan


PREZIOA
(mediana)

12,0 €
11,5 €

2023ko lehen hiruhilekoan

DANTZA-EMANALDIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

4. grafikoa: Dantza-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera, 2024ko urtarrila-martxoaren (%)



2023ko lehen hiruhilekoan:

- Araba: % 4,4
- Bizkaia: % 51,8
- Gipuzkoa: % 43,8

7. taula: Dantza-emanaldien banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	DANTZA-EMANALDIAK, 100.000 biztanleko (2024KO LEHEN HIRUHILEKOA)	DANTZA-EMANALDIAK, 100.000 biztanleko (2023KO LEHEN HIRUHILEKOA)
ARABA	3	2
BIZKAIA	7	6
GIPUZKOA	7	8

Dantza-emanaldi guztien % 55 Bizkaian izan dira, % 37,9 Gipuzkoan eta % 7,1 Araban.

Dantza-emanaldien banaketa lurraldearen arabera 100.000 biztanleko kalkulaturik, Gipuzkoak eta Bizkaiak emanaldi-kopuru bera programatu dute (7) 100.000 biztanleko. Arabak, aldiz, 3 programatu ditu.

DANTZA-EMANALDIEN BANAKETA, DANTZA-GENEROAREN ARABERA

8. taula: Dantza-emanaldien banaketa, dantza-generoaren arabera (%)

	DANTZA-EMANALDIAK (2024KO LEHEN HIRUHILEKOA) %	DANTZA-EMANALDIAK (2023KO LEHEN HIRUHILEKOA) %
DANTZA GARAIKIDEA	57,9	62,8
DANTZA TRADIZIONALA	27,9	27,7
BALLET KLASIKOA	7,1	5,1
BESTE BATZUK	7,1	4,4

Dantza garaikidea izan da EAEko agertokietan emanaldi gehien izan duen dantza-generoa, guztien % 57,9rekin. Dantza tradizionala izan da bigarrena, emanaldien % 27,9rekin.

Azkenik, dantza-emanaldien % 7,1 ballet klasikokoak izan dira, "beste batzuk" moduan sailkatutako emanaldien ehuneko berarekin (dantza eta beste diziplina artistiko batzuk uztartzen dituzten ikuskizunak izan dira, batez ere).



6. Bertsolaritza

2024ko lehen hiruhilekoan EAEn
izandako bertso-ekitaldien azterketa




BERTSOLARITZA: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

140
bertso-saio

-% 9,5

2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta

5. grafikoa: Bertso-saioen banaketa, lurraldearen arabera, 2024ko urtarrila-martxoa (%)



■ Bizkaia ■ Gipuzkoa ■ Araba

2023ko lehen hiruhilekoan:

- Araba: % 12,8
- Bizkaia: % 29,9
- Gipuzkoa: % 57,3

BERTSOLARITZA: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

9. taula: Bertso-saioen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	BERTSO-SAIOAK, 100.000 biztanleko (2024KO LEHEN HIRUHILEKOA)	BERTSO-SAIOAK, 100.000 biztanleko (2023KO LEHEN HIRUHILEKOA)
ARABA	10	11
BIZKAIA	7	7
GIPUZKOA	18	22


2024ko lehen hiruhilekoan egindako bertso-saioen % 53,2 Gipuzkoan izan dira, % 33,5 Bizkaian eta % 13,3 Araban.

Kulturkliken jasotako bertso-saioen banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko handiagoa da Gipuzkoan** (18 ekitaldi 100.000 biztanleko), Araban (10) eta Bizkaian (7) baino.



7. Erakusketak

2024ko lehen hiruhilekoan EAEn izandako erakusketen azterketa




ERAKUSKETAK: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

329
erakusketa

+% 1,3

2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta

6. grafikoa: 2024ko urtarrila eta martxoa bitartean inauguratutako erakusketen banaketa, lurraldearen arabera (%)



2023ko lehen hiruhilekoan:

- Araba: % 17,5
- Bizkaia: % 50,5
- Gipuzkoa: % 32,0

ERAKUSKETAK: EKITALDIAK ETA HAIEN BANAKETA, LURRALDEAREN ARABERA

10. taula: Erakusketen banaketa, lurraldearen arabera, 100.000 biztanleko

	ERAKUSKETAK, 100.000 biztanleko (2024KO LEHEN HIRUHILEKOA)	ERAKUSKETAK, 100.000 biztanleko (2023KO LEHEN HIRUHILEKOA)
ARABA	18	17
BIZKAIA	14	14
GIPUZKOA	15	14

2024ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean inauguratutako erakusketen ia **erdiak (% 49,5) Bizkaian** ireki dituzte ateak, % 32,5ek Gipuzkoan eta % 18k Araban.

Erakusketen banaketa lurraldearen arabera **100.000 biztanleko** kalkulatuta, **handiagoa izan da Araban** (18 ekitaldi 100.000 biztanleko), Gipuzkoan (15) eta Bizkaian (14) baino.